

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatu nagusiaren ekainaren 19ko 283/2019 Foru Dekretuaren bidez, helduen euskalduntzea sustatzeko xedez lehiaketa bidez ematen diren 2019-2020 ikasturterako dirulaguntzen deialdia onetsi zen

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, aurrera daramatzen jardueren artean, egoki iritzi dio helduen euskalduntzea sustatzeko 2019-2020 ikasturterako laguntzen deialdia egiteari.

Proposatzen dena da dirulaguntza ematea A1, A2, B1 eta B2 mailetako 2019-2020 ikasturterako matrikulazioaren prezioa jaisteko, HABEk homologaturiko Arabako edo Trebiñuko euskaltegietan, baita autoikaskuntzako ikastaroak ere, baldin eta 190 ordukoak edo hortik gorakoak badira, beti ere A1 eta/edo A2koak badira. Araban edo Trebiñun erroldaturiko adinez nagusiek jasoko dituzte dirulaguntzak.

Halaber, proposatzen da ezen euskaltegien erregistroan eta euskararen autoikaskuntzarako HABEko zentro homologatuetan izena emanda dauden euskaltegi eta zentroak erakunde laguntzaileak izan daitezkeela, hala eskatzen badute, xedapen honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuena eskaerak kudeatu eta izapidetu ahal ditzaten.

Horretarako, beharrezkoa da ezartzea euskara ikasteko ahalegina egiten duten pertsonen laguntzeko dirulaguntzek bete beharreko berariazko esparru arautzailea.

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik, dauzkadan ahalmenak erabiliz eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea helduen euskalduntzea sustatzeko xedez lehiaketa bidez ematen diren eta 2019ko ekitaldian indarrean egongo diren 2019-2020 ikasturterako dirulaguntzen deialdi publikoa, 100.000 euroko zuzkiduraz. Deialdi hori arautuko da Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak ezarritakoa oinarri (2015ko urriaren 21eko ALHAO, 123. zk.), zeinaren bidez onetsi baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehia bidez esleitzen diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri orokorrak eta erabaki honen eranskinean doazen berariazko oinarriak.

Bigarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.07.78.00.480.00.01 (70-138 lerroa; xedapen erreferentzia: 105.3085).

Aurrekontuan hasiera batean jasotako kopurua (100.000 euro) handitu egin ahalko da, gehenez ere kopuru horren ehuneko 10, aurrekontuko baliabide erabilgarrien arabera.

Hirugarrena. Onestea eta baimentzea 4.000 euroko gastua eta haren balizko zabalkuntzak. Erakunde laguntzaileen aldeko konpentsazio ekonomikoa 2019rako 4.000 euroan kalkulatu da, Arabako Foru Aldundiko 2019ra luzatutako 2018ko "Euskara sustatzeko jarduerak" 70.1.07.78.00.227.99.01 aurrekontu partidaren kontura ordainduko da (lerro zenbakia: 70-127; xedapen erreferentzia: 105.3086), eta deialdia ebatzi ondoren ordainduko da, 3 euro ezarriko direlarik konpentsazio ekonomiko gisa, kudeatutako eta onartutako matrikula bakoitzeko.

Laugarrena. Baimena ematea Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari erakunde laguntzaileekin egin beharreko hitzarmenak sinatzeko.

Bosgarrena. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, bost hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Seigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiok e diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakiok e bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zazpigarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen duen moduetan.

Zortzigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria

JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

Eranskina

Helduen euskalduntzea sustatzeko xedez 2019-2020 ikasturtean lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzen deialdia

Lehenengoa. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea da 18 urtetik gorako helduen euskalduntzea sustatzea, betiere Araban eta Trebiñun erroldatuta badaude eta 2019-2020 ikasturtean Arabako euskaltegietan matrikulatzen badira; sustapen hori Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak xedatutakoaren esparruan da egitekoa, zeinaren bidez onetsi baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzen esleipena arautzen duten oinarriak.

Dirulaguntza hauen helburua da A1, A2, B1 eta B2 mailetako matrikularen prezioa gutxiagotzea 2019-2020 ikasturterako, Arabako edo Trebiñuko euskaltegi HABEk homologatuetan, baita A1 eta/edo A2ko 190 ordukoak edo hortik gorako autoikaskuntzako ikastaroak ere.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Emango diren laguntzen zenbatekoa, guztira, 100.000,00 eurokoa izango da; gehiago ere izan daiteke, eman beharreko laguntzek guztira egiten duten zenbatekoaren eta aurrekontuko baliabide erabilgarrien arabera.

Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko gastu aurrekontuko 70.1.0778.00.480.00.01 partidatik ordainduko da.

Hirugarrena. Pertsona onuradunak

Deialdi honetako dirulaguntzak, pertsona fisikoek eskatu ahalko dituzte, ezaugarri hauek betetzen badituzte:

- Adin nagusikoa izatea deialdia ALHAOn argitaratzen den datarako.
- Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko Konderrian erroldaturik egotea deialdia ALHAOn argitaratzen den datarako.
- A1, A2, B1 eta B2 mailetan matrikulatzea Arabako edo Trebiñuko euskaltegi HABEk homologatutako batean.

Berariaz programatik kanpo geratuko dira herri administrazioetan zerbitzu ematen duten eskatzaileak; herri administrazioek finantzatuko dute haiek euskara ikastea eta euskararako gaitzea.

Laugarrena. Erakunde laguntzaileak

1. Euskaltegien erregistroan eta euskararen autoikaskuntzarako HABEko zentro homologatuetan izena emanda dauden euskaltegi eta zentroak erakunde laguntzaileak izango dira hala izatea eskatzen badute.
2. Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, erakunde laguntzaileek lankidetzaz hizarmen bat sinatu beharko dute Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailarekin, organo horrek ematen baitu dirulaguntza, non arautuko baitira erakunde laguntzaileek beren gain harturiko baldintza eta betekizunak.
3. Xedapen honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetuko dituzte erakunde laguntzaileak.
4. Erakunde laguntzaile izatea eskatzeko, euskaltegiek hogeita hamar egun naturaleko epea izango dute, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena. Deialdian sartzan diren moduluak eta dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa

Aurrez aurreko moduluak

Emango den laguntzaren zenbatekoa hirutara banatzen da, ikastaroaren orduen arabera:

1. 248-400 orduko moduluak: 75,00 euro
2. 401-600 orduko moduluak: 120,00 euro
3. 601 ordu baino gehiagoko moduluak: 240,00 euro

Autoikaskuntzako moduluak

Diruz lagungarriak izango dira hastapen ikastaroak (A1 eta A2)

4. 190 ordukoak edo hortik gorako autoikaskuntza moduluak, 75 euro

Eskaera eta jaso beharreko zenbatekoen kopurua dela eta, dirulaguntzetan eman beharrekoa deialdiaren diru zuzkidura baino gehiago balitz eta, ondorioz, laguntzak murriztu egin beharko balira, murrizketa hori heinean egingo litzateke onuradun guztien artean.

Seigarrena. Organo eskuduna

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Zazpigarrena. Eskatzaileek aurkeztu beharko dituzten agiriak

Matrikulatzeko orduan, eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte euskaltegian:

- Dirulaguntzen eskaera inprimaki normalizatuan. Inprimaki hori Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emango du, edo, bestela, dagokion web orritik jaitsi ahal izango da www.araba.eus o www.euskaraba.eus.
- Eskatzailearen NANaren fotokopia edo pasaporteak.
- Trebiñuko konderrian erroldatutako eskatzaileek erroldatze zedula aurkezturik eduki beharko dute deialdia ALHAOn argitaratzen den egunerako.

Zortzigarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Onuraduna Arabako edo Trebiñuko euskaltegi homologatu batean matrikulatu beharko da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den eguna eta 2019ko irailaren 30a bitarteko epean (biak barne).

Matrikulatzeko orduan, euskaltegiak dagokion deskontua aplikatuko dio modulu bakoitzari, onuradunetz onuradun.

Onuradunak, euskaltegian matrikulatzeko orduan, inprimaki orria beteko du, deialdia onestearekin argitaratuko dena.

Bederatzigarrena. Eskabideak aztertu eta ebaztea

1. Dirulaguntzak aztertu eta eman edo ukatuko dira euskaltegiek aurreko paragrafoan aipatzen diren agiriak aurkeztu ahala, eta, betiere, haiek aurkezteko epea amaitu eta gero.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz, eta eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Ez da entzunaldi izapiderik aitortuko, eskatzaileek aurkeztutako egitateak eta agiriak soilik hartuko baitira kontuan ebazpenean.

2. Organo eskudunak, Euskararen Foru Zerbitzuak proposatuta, ebazpena emango du 2019ko abenduaren 30a baino lehen. Epe hori igaro ondoren ez bada eman esanbidezko ebazpenik, erakunde interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute.

3. Esleipen ebazpenean zer eskatzaileri eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berriaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

4. Kontuan izanda urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 45. artikuluan xedatutakoa, dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta jakinarazpen ondorioak izango ditu horrek.

5. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero, errekurtsua aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Hamargarrena. Laguntzak ordaintzea

Nola eta laguntza matrikularen zenbatekoari aplikatuko zaion deskontu bat den, erakunde laguntzaileei ordainduko zaizkie dirulaguntzak, ikastegi bakoitzean matrikulatutako onuradunen kopuruaren arabera.

Hamaikagarrena. Laguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozer dela ere, edozein erakunde publiko edo pribatuk gauza bererako emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egin daiteke, eta dirulaguntza itzuli beharra ere gerta daiteke.

Hamabigarrena. Laguntza galtzea

Onuradunak, espedientea ireki ondoren, deialdi honen bidez iragarritako laguntza gal dezake, baldin eta eskaeran edo agirietan datuak ezkutatu baditu edo gezurra esan badu, edo deialdi honetan adierazitakoak bete ez baditu.

Deialdi honetan zehaztutako betebeharren bat ez betetzeak berekin ekarriko du laguntza berriro aztertzea, eta egoki iritiz gero, laguntza baliogabetzea edo ordura arte jasotakoa itzuli behar izatea.

Era berean, jasotako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, xedatzen dituen kasuetan.

Espedientearen ondorioz dirulaguntza galtzen bada, aurreko paragrafoan aipatzen den araudian ezarritako zehapen araubidea aplikatuko da.

Onetsitako dirulaguntzak itzultzea zuzenbide publikoko diru sarrera gisa hartuko da, eta abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, II. tituluko I. kapituluan xedatutakoaren arabera kobratuko da hura.

Hamahirugarrena. Garapena

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak egoki iritzi adina ebazpen emango ditu deialdi hau garatzeko, eta, halaber, dirulaguntzaren zenbatekoa gehitzeko ebazpena ere emango du, beharrezkoa izanez gero; bestalde, akzioak baliatu ahal izango ditu galdatzearen eta egiaztatzearen datuak egiazkoak izan daitezela eta deialdi honetan araututakoa bete dadila.

Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ere eman beharko dute.

Hamalauugarrena. Interpretazioa

Aldundi honetako Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du deialdi honen interpretazioaren inguruan sortzen den edozein zalantza.

Hamabosgarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetako dirulaguntzekin batera, organismo edo erakunde publiko nahiz pribatuek, estatuko nahiz nazioartekoek, jarduera edo programa bererako esleitutako dirulaguntzak ere jaso ahal izango dira, betiere dirulaguntza horren zenbatekoa ez bada, bakarka nahiz beste dirulaguntzekin batera, matrikularen kostua baino handiagoa.

Hamaseigarrena. Publizitatea


Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahal dena egingo da hedabideetan zabalkunderik handiena izan dezan.

Hamazazpigarrena. Baliabideak

Deialdi honen bai beraren ondoriozko administrazio egintzen aurka jo ahal izango da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako kasu eta moduetan.

Hemezortzigarrena. Azken klausula

Deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearena; aurrekontua egikaritzeko foru araua, indarrean dagoena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; 3/2007 Lege Organikoa, gizonen eta emakumeen berdintasunerakoa; 4/2005 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonen berdintasunerakoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Helduen euskalduntzea sustatzeko 2019-2020 ikasturterako laguntza ekonomikoa eskatzeko inprimakia.</p> <p>2019</p> <p>Solicitud de ayuda económica destinada a incentivar la euskaldunización de personas adultas, curso 2019-2020</p>
--	---

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

ERANSKINA ■ ANEXO

Eskaera zk. ■ Nº Solicitud

Administrazioak betetzeko
A cumplimentar por la Administración

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			Identifikazio zk. ■ Nº identificativo <input type="text"/>			Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre <input type="checkbox"/> Ez binario No binario		
Izena ■ Nombre <input type="text"/>			Lehen abizena ■ Primer apellido <input type="text"/>			Bigarren abizena ■ Segundo apellido <input type="text"/>		
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) <input type="text"/>			Zk. ■ Núm. <input type="text"/>	Letra <input type="text"/>	Eskra. ■ Escal. <input type="text"/>	Solairua ■ Piso <input type="text"/>	Aldea ■ Mano <input type="text"/>	
Herialdea ■ País <input type="text"/>	Probintzia ■ Provincia <input type="text"/>	Udalerría ■ Municipio <input type="text"/>	Herría ■ Localidad <input type="text"/>	P. K. ■ C. P. <input type="text"/>				
Telefonoa ■ Teléfono <input type="text"/>	Mugikorra ■ Móvil <input type="text"/>	Faxa ■ Fax <input type="text"/>	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/>					

Berariaz baimena ematen dut nire datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta helduen euskalduntzea sustatzearekin loturiko AFaren laguntza ekonomikoen tramitazio eta kontrola kudeatzeko helburuz bada. Exproso mi consentimiento para que Diputación Foral de Álava (DFA) trate mis datos personales para las finalidades de gestionar la tramitación y control sobre las ayudas económicas destinadas por DFA para incentivar la euskaldunización de personas adultas.

Berariaz baimena ematen dut Arabako Foru Aldundiak dagokion euskaltegiari ebazpen laguntzaren zenbatekoa jakinarazi diezaion, baldin eta egikaritze prozeduraren baten ondorioz atxikiturik geratuko balitz. Manifiesto mi consentimiento expreso a que en caso de que el importe de la ayuda concedida sea retenido como consecuencia de procedimientos ejecutivos, la Diputación Foral de Álava comunique al euskaltegi correspondiente tal circunstancia con indicación del importe retenido.

Berariaz baimena ematen dut Arabako Foru Aldundiak euskara sustatzeko eginiko komunikazioak jasotzeko. Manifiesto mi consentimiento expreso para recibir comunicaciones de promoción del euskera de la Diputación Foral de Álava.

Euskaltegia

Ikastaroren ordu kopurua guztira Número total de horas del curso

248-400	401-600	> 600	
---------	---------	-------	--

Autoikaskuntza ikastaroren ordu kopurua Número total de horas del curso autoaprendizaje

190	> 190	
-----	-------	--

Hasiera maila Nivel inicial

A1	A2	B1	B2
----	----	----	----


(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante

ERANTSITAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

- NAN edo pasaportearen fotokopia ■ Fotocopia del D.N.I. o pasaporte
- Trebiñuko Konderriko errolda agiriaren fotokopia 2019an eguneratua ■ Fotocopia de la cédula de empadronamiento actualizada en 2019 en el Condado de Treviño

Orria ■ Hoja 1/2



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

Helduen euskalduntzea sustatzeko 2019-2020 ikasturterako laguntza ekonomikoa eskatzeko inprimakia.
2019
Solicitud de ayuda económica destinada a incentivar la euskaldunización de personas adultas, curso 2019-2020

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

ERANSKINA ■ ANEXO

OHARRA ■ NOTA

Matrikulazioarekin batera, inprimaki orria bete behar da eta euskaltegiak dagokion deskontua aplikatuko dio matrikulazio prezioari. Eskaera Aldundiari bideratuko zaio, eta Aldundiak eskaerak ebatziko eta jakinaraziko dizkio bakoitzari. ■ Junto con la matrícula, es necesario rellenar el impreso de solicitud. El euskaltegi aplicará el descuento correspondiente al precio de la matrícula. La solicitud se tramitará a la Diputación Foral de Álava, donde se resolverá y notificará a cada persona beneficiaria la resolución sobre su solicitud.

Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulatasuneko "Helduak euskalduntzeko laguntzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua Arabako Foru Aldundiak helduen euskalduntzea sustatzearrekin loturiko laguntzen eskaera, tramitazio eta kontrolerako egiten da. Bermatzen dugu datuak isleipen gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuez kanpo. Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiak zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOK aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza 5, 01001 PK, Gasteiz- Araba). Argibide gehiago: <http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alia eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, [posta elektronikoa](#) [bakarraren helbidea](#) (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduraren baja ematea.

Oharra

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Ez ordetzatzen dudan erakundeak ez erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridikok edo elkarte ez dela, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen eta funtzionamendu prozesuetan, OLoren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasun Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

BIGARRENA.- Ez ni, ez ordetzatzen dudan erakundea edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarte ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez eta abuztaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta marxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalagarrenen gizonen eta emakumeen berdintasun arloko xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloan ezarritako betebeharrak.
2. Sexua dela eta, ordainsari, lanaldi, prestakuntza, sustapen eta gainerako lan baldintzetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa dakarten enpresa erabakiak.
3. Langileek enpresan egindako errekklamazio edo berdintasun eta bereizkeriak gabeko printzipioa betetzeko eskatzen duten egintza administrazio edo judicial baten aurrean, haien aurkako jarrera dakarten enpresabururen erabakiak.
4. Publizitate edo beste zernahi hedatze bidez, baldintzak ezartzea, sexua arrazoi, onerako edo berrirako baztertzeko erabakiak.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarpena normahi dela ere.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarpena normahi dela ere, baldin eta enpresaburuk, jakinaren gainean, ez badu neurrik hartu halakorik ekiditeko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteko abuztaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46 bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badi. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

Nota (1)

"Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. Nos facilitará van a ser incluidos en el Fichero de AYUDAS EUSKALDUNIZACIÓN ADULTOS titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la solicitud, tramitación y control sobre las ayudas económicas destinadas por la Diputación Foral de Álava a incentivar la euskaldunización de personas adultas.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información: <http://www.araba.eus/web/AvisosLegalAmpliada>

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una [dirección de correo electrónico única \(DEU\)](#) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los [procedimientos](#) que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

Nota

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.- Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo):

SEGUNDO.- Que ni yo, ni la organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo):

1. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación
2. Decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por circunstancias de sexo,
3. Decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación
4. Establecer condiciones, mediante la publicidad, difusión o por cualquier otro medio, que constituyan discriminaciones favorables o adversas para el acceso al empleo por motivos de sexo,
5. Acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma
6. Acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo
7. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el Apartado 2 del 46 bis del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.

Orria ■ Hoja 2/2